



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, 2021EKO OTSAILAREN 26KOA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZAINKETEN EREMUAN (ADINTSUENTZAKO EGOITZAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK ETA EGUNEKO ZENTROAK; DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO ZENTROAK ETA ZERBITZUAK; ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA; TELELAGUNTZA; ESKU-HARTZE SOZIALA) KOMUNITATEARI EMATEN ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA MARTXOAREN 4RAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DEITUTAKO GREBAN.**

---

CCOO Euskadi sindikatuak greba-deialdia aurkeztu du zainketen arloan, 2021eko martxoaren 3ko 22.00etatik 2021eko martxoaren 4ko 22.00etara. Deialdiak Euskal Autonomia Erkidegoko langile guztiak, enplegatu publikoak eta empresa pribatu guztietakoak hartzen ditu, bai eta eta administrazio publikoak ere, baldin eta honako arloetan jarduten badute: zaintza eta gizarte-zerbitzuak, etxez etxe laguntza, etxe langileak, esku-hartze soziala, hezkuntza-aisialdia, animazio soziokulturala, telelaguntza eta gaixotasun mentalak.

Deialdia egin duen sindikatuaren arabera, greba deialdiaren helburuak ondorengoak dira: *Gizarte- eta zaintza-zerbitzuen publikazioa; kalitatezko zerbitzuak baldintza optimoetan ematea ahalbidetuko duten ratioak areagotzea; gaur egun zerbitzua ematen duten langileen gizarte- eta lan-baldintzak bultzatzea, hitzarmen kolektiboak berrituz, langileak gehituz eta langileen osasunaren babesa hobetuz; gizarte-zerbitzu eta zainketa publiko unibertsal, doako eta kalitatezko finantzaketa nahikoa bermatzea; Ezkutuko ekonomian lan egiten duten etxe langileen erregulazioa; LANeren 189. hitzarmena berrestea; Europako eskubideekin bat datorren negozio kolektiborako eremua sortzea eta sektoreko hitzarmen bat egitea etxe langileentzat; etxe langileek honako prestazio hauek jasotzeko aukera izatea: langabezia (eta ez koiunturalki, gaur egun bezala), 55 urtetik gorakoentzat sorospen handiagoak.*

ELA sindikatuak, bestalde, lanaldi osoari eragingo dion greba deialdia aurkeztu du martxoaren 4rako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zainketen alorrean. Deialdiak honako hauei eragingo die: hirugarren adinekoen egoitzetako kudeaketa publikoko eta pribatuko lantokiak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak; etxez etxe laguntzaren sektore publikoa eta pribatua; esku-hartze sozialaren sektorea (adingabeentzako zentroak eta kudeaketa publikoko eta pribatuko tutoretzapeko etxebizitzak; bazterketa-arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten kolektiboak); desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentroak eta zerbitzuak; etxe tele-laguntzako zerbitzu publikoko langileak eta etxe langileak.

Deialdia egin duen sindikatuak ondorengo helburu lortu nahi ditu: *zaintzaren sektorean egiturazko aldaketa sustatzea. Horretarako, zaintza profesionalizatuek publikoak, duinak, unibertsalak eta doakoak izan behar dutela aldarrikatzen da.* Deialdia egin duen sindikatuak honako neurri hauek proposatzen ditu bere aldarrikapenei erantzuteko: *egoera bereziki ahulean dauden pertsonak zaintzeko zerbitzuen publikazioa (etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak, tutoretzapeko etxebizitzak, aterpetxeak eta esku-hartze sozialeko beste baliabide batzuk); enplegu zuzena eta azpikontrataturik subrogatzeko eta finkatzeko bermeak (behin-behinekoa barne); 10.000 profesional gehiago kontratatzea eta lanaldiak %100era handitzea (borondatez kontrakoa eskatzen denean izan ezik); sektorean dagoen genero-arrakala ezabatzeko neurriak hartzea eta zaintzen gizarte- eta produkzio-balioa aitortzea; arreta zuzeneko ratioak hobetzea eta baja egoeran dagoen pertsona lehen egunetik ordezkatzeko; lan-osasuna babesteko neurri eraginkorrak hartzea, bereziki arrisku psikosozialen prebentzioa eta emakumezko langileentzako erreparazio emozionaleko plan bat, neurri batean, behintzat, pandemiaren ondorio larriak arinduko dituen.*

ESK, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek urtarrilaren 26rako eta martxoaren 4rako egindako greba-deialdiak direla eta, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko Sailburuak 2021eko urtarrilaren 22ko Agindua eman zuen. Agindu horren bidez, zainketen arloan (hirugarren adinekoen egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak; desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentroak eta zerbitzuak; etxez etxeko laguntza; telelaguntza-zerbitzua eta esku-hartze soziala) komunitateari ematen zaizkion gutxieneko zerbitzuak mantentzea bermatzen da. Agindu horren lehenbiziko ebazpenean honakoa adierazten da: “*2021eko urtarrilaren 26 eta 2021eko martxoaren 4rako, lanaldi osoan, bi egunetarako, greba gaueko lanaldiarekin hasten delarik, 0:00 orduak baino lehen, eta aipatu egunetan 24:00 orduetan amaitzen delarik, greba egitera deitu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan zerbitzuen alorrean zerbitzuak ematen dituzten pertsonala, hala kudeaketa publiko nola pribatuko hurrengo egoitzetan: adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitario eta eguneko egoitzetan; desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentro eta zerbitzuetan; etxez-etxeko laguntzan, hala sektore publiko zein pribatuan; telelaguntza zerbitzuan; eta esku-hartze sozialaren sektorean (adingabeen egoitzak, bazterketa arriskuan dauden pertsonen egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta esku-hartze sozialerako gainerako zentroak, hala kudeaketa publiko nola pribatukoak, eta bazterketa arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten kolektiboak). Horiek guztiek greba-eskubidea erabili ahal izango dute, beti ere, hurrengo idatz-zatietan ezartzen diren funtsezko prestazioak eta horien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak ematen diren heinean”.*

Euskadiko CCOO eta ELA sindikatuek orain aurkezten dituzten deialdiek 2021eko urtarrilaren 22ko Aginduan jasotako funtzio-, lurralde- eta denbora-eremuari eragiten diote; beraz, deialdi honetan greba-eskubidea egikaritzen den bitartean komunitateari funtsezko zerbitzuak ematen jarraituko dela bermatzeko beharrezkoak diren gutxieneko zerbitzuak agindu horretan ezarrita egongo lirarteke.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatuak egikaritzea dagokio, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENA.** - Martxoaren 4an, lanaldi osoan, 2021eko martxoaren 3ko 22:00etatik 2021eko martxoaren 4ko 24:00etara, Euskal Autonomia Erkidegoko zainketen eremuan, kudeaketa publikoko eta pribatuko lantokietan, hirugarren adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitarioetan eta eguneko zentroetan, desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuetan, etxeko laguntzaren sektorean (publikoa eta pribatua), telelaguntza-zerbitzuan eta esku-hartze sozialaren sektorean (adingabeen egoitzak, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta esku-hartze sozialeko gainerako zentroak, kudeaketa publiko eta pribatukoak, eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen lan egiten duten kolektiboak), greba-eskubidea baliatzeko egindako deialdian Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko Sailburuak urtarrilaren 22ko Aginduan zehaztutako funtsezko prestazioak eta horien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira.

**BIGARRENA.** - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.



Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 26an.

**Idoia Mendia Cueva**  
**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA**  
**LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**